

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala**

Kirola, euskara, musika eskola eta haurreskolako diru-laguntzak eskatzeko 2020. urteko deialdia egiteko Alkateak urriaren 30ean hartutako 132/2020 Erabakiaren laburpena. BDNS (Identif.): 531020.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/531020>):

«KIROLA, EUSKARA, MUSIKA ETA HAURSKOLARAKO DIRU-LAGUNTZAK
ESKATZEKO 2020KO DEIALDIA

1. Xedea

Honakoaren xedea da Gautegiz Arteagako bizilagunek egindako kirol gune, euskara ikastaro, musika ikastaro eta haurreskolako matrikula edo abonua diruz laguntzeko baldintzak arautzea, Gautegiz Arteagako Udalaren Laguntzak arautzeko Ordenantza oinarritzat izanik (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 18 zenbakia, 2009ko urtarrilaren 28koa).

2. Aurrekontua

Gautegiz Arteagako Udalak 8.400,00 euroko aurrekontua izango du onartutako eskabide guztien artean banatzeko.

Baldin eta eskabideak aztertu eta gero, diru-laguntza honetarako Udalak aurreikusitako diru kopurua baino kopuru handiagoa ateratzen bada, lortutako zenbatekoaren eta eskura dagoen diruaren arteko diferentzia zatituko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatzaile guztien artean.

3. Diruz lagunduko diren ikastaroak eta zenbatekoak

— *1. mota: Herri kiroldegiak.* Diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonutarifen eta Gautegiz Arteagan erroldatuen abonutarifen arteko aldea izango da, jarduera hori Gautegiz Arteagako udalerrian egiterik ez badago.

— *2. mota: Euskara-ikastaroak.* Diruz lagunduko den zenbatekoa ikasturteko euskara-ikastaroen matrikularen prezioaren %50 izango da eta barnetegi matrikularen prezioaren %20 izango da.

— *3. mota: Herri musika eskolak.* Diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonutarifen eta erroldatu gabeen abonutarifen arteko aldea izango da.

— *4. mota: Gautegiz Arteagako Haurreskola.* Gautegiz Arteagako Haurreskolan matrikulatzen diren hurrek %50 dirulaguntza edukiko dute.»

Gautegiz-Arteagan, 2020ko urriaren 30ean.— Alkatea, Juan Félix Naberan Ozamiz